

MEMORIALAB HERRITARRON TOPAKETAK

**MEMORIAREN ERAIKUNTZA
SOZIALERAKO**

2013-2018



"Ezer aldatzen ez bada ere, ni aldatzen banaiz, dena aldatzen da".

Honoré de Balzac

"Behar dugun gauza bakarra buruzagi eta hierarkiarik gabeko espazio bat da, xede oroz husturik dagoen leku bat, espazio libre bat, geure buruari gauza guztiez hitz egiten utzi ahal izan diezaiozun".

David Bohm

"Bizikidetzaren birsorkuntzak eta herri, auzo, eta zentro urbano, kultural eta kirolekoen elkar aditzeak beste balore etikoen eta biltzeko giro lagunkoien beharra du. Horiek gabe, eta nahiz eta diskurtso eta plan asko egon, aurrerapauso gutxi emango ditugu. Hau ez da egun batetik bestera gertatzen, eraiki egiten da".

ETIKER Kolektiboa

MEMORIALAB

Herritarron topaketak memoriaren eraikuntza sozialerako
2013-2018

Dokumentuaren egileak:

Iñigo Retolaza Eguren, erraztailea
Iratxe Momoitio Astorkia, Gernikako Bakearen Museoa
Rocío Salazar Torre, Bakeola-EDE Fundazioa
María Oianguren Idigoras, Gernika Gogoratuz

Editoreak:

Gernika Gogoratuz, Bakearen Aldeko Aztertegia. Gernika Gogoratuz Fundazioa.
C/Artekalea, 1-1º E-48300. Gernika-Lumo.Bizkaia (Spain)
info@gernikagogoratuz.org
<http://www.gernikagogoratuz.org>

Gernika Sarea bildumaren zuzendaria:

María Oianguren Idigoras

Diseñua eta maketazioa:

Goikipedia

Azaleko irudia:

Alex Carrascosa, Gernika Gogoratuz

Argazkiak:

Memorialaben artxiboa

Itzulpena:

Bakun itzulpen eta argitalpen zerbitzua S.L eta Ane Iturriarte

Lege-gordailua:

BI-523-2019

ISSN:

1136-5811

© **Jabetza eskubideak:** Autoreek dokumentu hau editatzeko ardura izan duen erakundearekin batera hemen argitaratuko den eduki orijinalaren jabetza intelektualaren eskubideak dituzte, eta Creative Commons lizentziaren arabera kudeatuko dira.




Gernika, 2019

MEMORIALAB HERRITARRON TOPAKETAK

**MEMORIAREN ERAIKUNTZA
SOZIALERAKO**

2013-2018

ANTOLATZAILEAK:



Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa
Fundación Museo De La Paz De Gernika



Bizikidetzaz, Gatazka eta Giza Eskubideak
Convivencia, Conflicto y Derechos Humanos



Bakearen Aldeko Aztertegia
Centro de Investigación por la Paz
Peace Research Center

EDUKIEN TAULA

ESKERRAK	7
HITZAURREA	9
01 ABIAPUNTUKO TESTUINGURUA	10
02 ALDERDI ETIKO-MORALA	12
03 ZER DA MEMORIALAB?	14
04 NORK SUSTATZEN DU MEMORIALAB?	16
05 EKIMENAREN GARAPENA	20
06 NOLA FINANTZATZEN DA MEMORIALAB?	28
07 NORK HARTU ZUEN PARTE TOPAKETETAN?	30
08 PREMISA METODOLOGIKOAK	32
09 NOLA EGIN ZIREN TOPAKETAK?	38
10 IKASITAKOAK	44
11 ETORKIZUNERA BEGIRA	54
12 EKIMENA ZABALTZEN	56
ERANSKINAK	58
ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	62

ESKERRAK

MemorialLab ekimena posible egin duzuen guztioi:

Bakeola-EDE Fundazioa

Rocio Salazar Torre
Irantzu Aurrekoetxea Perez
Maidier Martiarena Arrastua

Gernika Gogoratuz Fundazioa

Maria Oianguren Idigoras
Andreas Schäfter

Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa

Iratxe Momoitio Astorkia
Idoia Orbe Narbaiza

Erraztaileak

Iñigo Retolaza Eguren
Alex Carrascosa

Aholkulariak eta laguntzaileak MemorialLaben hastapenetan

Xurdana Imaz
Gorka Ruiz Santana
José Antonio López Egaña

Aurreneko tailer-laboretagian lagundu ziguten beste profesional batzuk

Esther Canarias (Incyde), Julián Ibañez de Opacua, Asier Gallastegi (Korapilatzen)
Gregorio Armañanzas, Pernan Goñi, Carmen Hernández, Axun Lasa

MemorialLab diruz lagundu duten instituzioak

- Eusko Jaurlaritzako Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritza, Udalen arloko Elkarrekin Bonuak programaren bidez
- Gernika-Lumoko Udala
- Abanto Zierbenako Udala
- Bartzelonako Udala
- Madrilgo Udala
- Instituto Internacional Catalán Por la Paz (ICIP) – Bakearen Aldeko Nazioarteko Institutu Katalana
- Landetxa auzo-elkartea (Irun)
- Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa
- Bakeola-EDE Fundazioa
- Asociación Española de Investigación por la Paz (aiPaz) – Espainiako Bakearen Aldeko Ikerketarako Elkartea
- Gernika Gogoratuz Fundazioa
- Francisco Caballero. Asociación Cultural Estudio 40 – Francisco Caballero. Estudio 40 Kultura Elkartea

Eta, batez ere, zuen astiaren parte bat MemorialLab ekimenari eskaini eta Berrizeko, Sanfuenteseko, Zornotzako, Gernikako, Medellineko, Irungo eta Madrilgo tailer-laboretagietan, formatua edozein zela ere, modu aktiboan parte hartu duzuen guztioi.

HITZAURREA

Hementxe daukagu, azkenean, MemorialLab ekimena nola sortu zen azaltzeko lehen dokumentua. Begiratu dezagun lasai, eta azpimarratu, eztabaidatu, aztertu eta, batez ere, gozatu. Ez gaitezen nahasi, ordea; esku artean daukagun hau ez da tratatu akademiko bat, ez eta txosten administratibo bat, edo argibide gidaliburu bat ere. Istorio bat da; benetan gertatu den ipuin erreal bat. Gure ilusioak eta aurreneko topaketetan parte hartu genuenon bizipen ugariak piztu zuten, hasieran, istorioa, eta oraindik ez da amaitu, MemorialLab hemen, gure artean, geratzeko eta aurrera egiten jarraitzeko baitago.

Ipuinetako heroiek misio bat izan ohi dute, eginkizun bat, nahigabe bat onbideratu beharra, mundu ezezagunak aurkitzeko nahia. Oztopo askori aurre egin behar izaten diete bidaiari, baina beti izaten dute nork lagunduko dieten, aliatu bikainak, ondoan eta haien trebetasunak lagun, aurrera egiten dute beren grinetan. Gogorra da bidea, eta benetako ipuinetan, gezurrezko ezirik gabeko horietan, amaiera itzurkorra izaten da; ez zehatz-mehatz norberak nahi lukeena, alegia. Baina guztiak merezi izan du, eta aurrera jarraitzen dugu.

Euskal gizarte horrelako heroiez beteta dago: motibazio politikoko indarkeriaren biktima dira, eta esku-zabaltasun osoz eta eginkizunaren zentzu betez beren zauriak partekatzeko zeregin zalantzazkoari ekiteko prest agertu dira. Heroi horiek gure bizitzan agertzen direnean zer-nolako bideak egin dituzten kontatzen digute, eta ikusten dugunean prest daudela gizarte hobeago bat lortzeko konpromisoan aurrera jarraitzeko, ezin dugu beste ezer egin, haiengandik ikastea, eskerrak ematea eta laguntzea baino.

Euskal gizarteak adiskidetzea eta bakezko bizikidetzat lortzearen egindako ekimenak ugariak izan dira, oraindik ere badira, eta izango dira. MemorialLabek oraindik izen hori ere ez zuenean, ekimenaren sustatzaileek sentitu zuten gizarte heroien bidezidorrean sartzeko formulak behar zirela. Eta oraindik aztergai diren txertoak jendeari jarri aurretik beren burua inokulatzen duten zientzialariek bezala, guk ere hala erabaki genuen: elkartu eta esperimentatzea, sentitzea eta egiaztatzea gizarteari iradokitzeaz geunden hori guk geuk egin genezakeela. Gerora beste batzuek egin ahal izan dute, eta oso berri ona da hori.

Jarraitu beharra dago, ordea. Ekin eta ekin, bidea urratzen jarraitu behar dugu, gure armarik onenez baliatuta: elkarri entzutea, hitza, errukia, abegikortasuna, konpromisoa, lankidetzat, justiziaren etika eta umiltasuna. Gure heroiek merezi dute.

Julián Ibáñez de Opacua
Gleencree esperientziaren kolaboratzailea

01

ABIAPUNTUKO TESTUINGURUA

**2011KO URRIAREN 20AN ETA ERAKUNDE
TERRORISTAK JARDUN ARMATUA BEHIN BETIKO UTZI
ZUELA ADIERAZI ZUEN. 2017KO APIRILAREN 8AN
ARMAGABETU ETA 2018KO MAIATZAREN 4EAN
TALDEAREN DISOLUZIOA ADIERAZI ZUTEN. EUSKAL
GIZARTEAREN HISTORIAN ETAPA BERRI BATEN HASIERA
IZAN ZEN HURA, ORDURA ARTE GERTATUTAKOARI
BURUZKO GOGOETAN SAKONDU ETA GIZARTE-
EHUNA BERREGITEKO PROZESUEI HELTZeko AUKEKAZ
BETETAKO ZIKLO BERRI BAT, ALEGIA.**

Indarkeria politikoak eragindako zauri, min eta haustura ugari daude oraindik. Terrorismoaz, indarkeriaz, giza eskubideen urraketez, hausturez eta gizarte-harremanen zatitzez betetako hamarkadek gai zail asko utzi dituzte konpontzeke: biktimen behar eta eskubideei erantzun bat ematea, memoria eta sufrimendu bidegabea kudeatzea, bizikidetza normalizatzea, espetxe-politika... Konpondu nahi baditugu, elkarriketaren kultura ezinbestekoa da.

Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak egindako¹ 2016ko Soziometroan (ordurako ETAk jardun armatua utzia zuen), datuek horrantz begira jartzen gaituzte. Txostenak azaltzen duenez, 1) herritarrek oraindik errezelok dituzte eta orokortu samarra da kezka eragile politikoak eta herritarrek auzi horretan adostasunera iristeko gai ez direlako, 2) Espainiako Gobernuak presoen egoera hobetzeko aurrerapausoak ematen ari ez delako, eta 3) ETAk ez ziolako armagabetze eta disoluzioari ekin.

2018ko Soziometroko² datuen arabera, ETArekin behin betiko disoluzioaren testuinguruan, ondorengo auziak azaldu dira: 1) Euskadiko bake prozesua eta bizikidetza euskal gizartearen kezkatzen dituen auziak dira; 2) bake prozesua aurrerapausoak ematen ari da 2016ko egoerari alderatuta, nahiz eta Espainiako Gobernuak oraindik ez eman beharrezko pausuak; eta 3) biktimei dagokienez, 2016ko egoerarekin alderatuz, Eusko Jaurlaritzaren jarrera hobetu da eta balorazio positiboak jaso ditu. Hala eta guztiz ere, elkarriketa beratu eta partekatu baterako espazio bare bat behar duten osatu gabeko auziak daudela uste dugu.

Azken urteotan, Eusko Jaurlaritzako Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak, gaur egun Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzarako Idazkaritza Nagusi deritzonak, garrantzi handiko urratsak eman ditu eskari horri dagokionez. Hainbat jardunbideri lotu zaio, ikerketak eginez, txostenak taxutuz eta programak abian jarritz. Hala, gai horretan giza eskubideen nazioarteko esparruak agintzen duena bete du.

Bakearen kulturarekin eta giza eskubideekin lotuta dauden gizarte zibileko erakundeek, bestalde, funtsezko eginkizuna bete dute. Hainbat herri-ekimen sustatu dituzte gizartearen polarizazioa ezin handiagoa zenean, eta bake-agertoki bat izan genezan lagundu zuten horrela. Erakunde horiek sustatuta izan da posible, besteak beste, bizipenak partekatzeko, indarkeriaren bidegabeaz jabetzeko, indarkeriak bizitza pertsonal eta sozialean zerbait inaktua duen ohartzeko inguru babestuetan topaketak egitea. Hitz batez, gogoeta egiteko, ikas dezagun gure iraganarekin erlazionatzen, modu kritikoan baina esker onez.

1. Prospekzio Soziologikoen Kabinetea: Bakea eta Bizikidetza, 2016ko azaroa.
http://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/o_16fef6/es_def/adjuntos/16fef6.pdf

2. Prospekzio Soziologikoen Kabinetea: Bakea eta Bizikidetza, 2018ko uztaila.
http://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/o_18fef3/es_def/adjuntos/18fef3.pdf

02

ALDERDI ETIKO-MORALA

**BAKEAREN PEDAGOGIA BAT SUSTATZEA DA
EKIMEN HONEN ZEHARKAKO ARDATZA, GIZA
DUINTASUNAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN EZAGUTZAN
ETA HAIEKIKO ERRESPETUAN HEZTEA, HORIEK IZAN
DAITEZEN JARDUNBIDE OROTAN HELBURU KOMUNA.**

**ONDORENGOAK DIRA MEMORIALAB EKIMENA
BIDERATU ZUTEN ALDERDI ETIKO-MORALAK.**

DEMOKRAZIA SAKONA

Demokrazian sakontzeko konpromisoa banako desberdinen arteko elkarrizketaren sustapenaren bidez: ahots guztiak, esperientzia guztiak, memoria guztiak.

GIZA ESKUBIDEAK

Erabateko konpromisoa giza eskubideak defendatzeko, bai eta giza eskubideen oinarria defendatzeko ere: giza duintasuna. Horretarako, esplizituki aitortu eta onartzea bai ETAre indarkeriaren bidegabekeria, bai eta giza eskubideen urraketa guztiak, egileak edozein izanik ere: talde terroristak, Estatua, segurtasun-indarrak edo talde parapolizialak.

BIKTIMAK

Erabateko konpromisoa egiarako, justiziarako eta erreparaziorako eskubideekin, kontuan hartuta eskubide horiek, salbuespenik gabe eta berdintasun-printzipioari jarraiki –diskriminaziorik gabe-, giza eskubideak urratu dizkieten biktimak guztiei dagozkiela, berriro gertatuko ez dela bermatzeko.

MEMORIA(K)

Erabateko konpromisoa elkarrizketan oinarritutako askotariko memoriekin, bizikidetza demokratikoa lortzerantz bideratua, pluralismoarekiko errespetuzkoa, biktimen sufrimenduarekiko solidarioa eta giza eskubideen kontrako zernahi erasoren salaketan irmoa.

03

ZER DA **MEMORIALAB?**

**MEMORIALAB, MEMORIA
SOZIALARI BURUZKO
HERRI-LABORATEGIA,
MEMORIAREN ERAIKUNTZA
SOZIALERAKO EKIMEN
BAT DA, ETA JENDEAREN
ARTEKO TOPAKETEN
BIDEZ EGIN NAHI DU
ERAIKUNTZA HORI: AZKEN
HAMARKADETAN EUSKAL
AUTONOMIA ERKIDEGOAN
IZAN DEN MOTIBAZIO
POLITIKOKO INDARKERIAK
ERA BATERA EDO
BESTERA JATORRI NAHIZ
IDEOLOGIA DESBERDINEKO
PERTSONENGAN IZANDAKO
ERAGINA LANTZEKO**

“Hasieran uste nuen gaia indarkeriari buruzkoa zela, baina gero konturatu nintzen bakoitzak bere eguneroko harremanez hitz egiten duela; garrantzitsua da ikustea nolako harremanak ditugun, zer esaten dugun, zer ez dugun esaten, zer adierazten dugun eta zer gordetzen dugun geuretzat”.

“Nire ustez enplegatzen den teknika arrisku handikoa da, bortitza; baina ondo gidatu zuten. Arduradunek ondo zekiten mugak jartzen”.

Memorialabeko partehartzaileak.

Topaketa horietan, bertaratzen direnek norberaren bizipenak partekatzen dituzte, bai indarkeria politikoarekin lotuak (terrorismoa, tortura...), bai eta herritarren bizikidetzat asaldatzearekin lotuak ere (enpatia falta, gizatasuna galtzea, harreman sozial edo familiarak haustea, isiltasuna, beldurra...).

MEMORIALAB ERE BADA...

- Laborategi sozial bat, gu pertsonok espazio eta denbora berean modu sortzailean nola bizi eta nola erlazioa gaitezkeen esploratzeko (bizikidetzat soziala).
- Auto-gogoetarako eta barne-elkarriketarako espazio bat, gutako bakoitzak eguneratu dezan, “memoriaren bidez”, gatazkarekin, indarkeriarekin eta horrek gure bizitzan izan zuen eraginarekin norberak duen harremana. Gertatu zirenak ezin alda ditzakegu, baina memoria indibidual eta soziala kudeatuz (memoriaren eraikuntza sozialera esker onez hurbiltzea) eralda dezakegu iragan traumatiko horrekin dugun harremana.
- Aukera bat ohartu gaitezen gatazkak itxuratu egin gaituela gizarte moduan (horretaz kontziente izanda zein ez), bai gure uste eta iritziei dagokienez (estereotipoak, aurreiritziak, ideologia...), bai eta gure jokabide-ereduei dagokienez ere (bestetasunarekiko eta ezezagun zaigunarekiko harremana...). Horrek guztiak aukera ematen digu, neurri handiago edo txikiagoan eta norberaren bizipenen arabera, testuinguru berriak gizarteari eskatzen dizkion erronketan “eguneratzeko” (identitate indibidual eta soziala eguneratzea).

BESTALDE, MEMORIALAB EZ DA...

- Gatazkarekin lotutako traumak sendatzeko asmoz talde-terapia egiteko ariketa bat. Dena den, horrek ez du esan nahi ariketek zenbaitengan eragin terapeutikoa ez duenik.
- Argudio eta eztabaida ideologiko irmoak botatzeko espazio bat, horrelakoek zatitu eta beste era batera pentsatzen dugunoi oztopoak jartzen baitizkigute modu bare eta partekatuan gogoeta egiteko.

04

NORK SUSTATZEN DU MEMORIALAB?

**EKIMEN HAU HIRU EUSKAL ERAKUNDEREN
BATERATZEAK SUSTATZEN DU, HIRURAK ERE LUZE
IBILIAK MEMORIAREN, BAKEAREN KULTURAREN,
GATAZKEN ERALDAKETAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN
GAITAN.**

GERNIKAKO BAKEAREN MUSEOA FUNDAZIOA

Gernikako Bakearen Museoa bakearen kulturari eta giza eskubideei buruzko museo tematiko bat da, 1998an sortua Gernika Museoa izenpean, eta 2003tik du oraingo izena. Gernikako hiriaren historia ere biltzen du museoak. Patronatua Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Gernika-Lumoko Udalak osatzen dute.



Pixkanaka haziz joan da, eta museo erakargarri eta dinamikoa da orain; sentitzeko eta bizitzeko espazio bat, bisitariok historiaren agertokira eraman eta, hunkiberatasunaren eta enpatiaren eskutik, adiskidetzearen bidea zabalago egiten eta guztion artean bakeari forma eman diezaiokegula pentsarazten digun leku bat.

Gernikako Bakearen Museoa Fundazioaren helburua bakearen kulturaren oinarritzko ideiak eta Gernika-Lumoren historiarekin izan duen eta daukan lotura (Espainiako Gerra Zibila) kontserbatzea, erakustea, zabaltzea, ikertzea eta bisitariak ideiotan hezte da, Gernika-Lumo, Bizkaia edo Euskal Autonomia Erkidegoa bakearen eta kulturaren aldeko jardunean erreferentziazkoak izan daitezen (toki, eskualde, estatu eta nazioarte mailan), historiaren eta bakearen arloetan diharduten beste erakunde batzuen lanarekin batera.

www.museodelapaz.org / museoa@gernika-lumo.net

BAKEOLA. BIZIKIDETZA, GATAZKA ETA GIZA ESKUBIDEAK. EDE FUNDAZIOA.

Bakeola EDE Fundazioa gatazkak behar bezala tratatzeko zentro espezializatua da, eta gizarte-eragile eta eragile politiko eta hezitzaileekin egiten du lan ikuspuntu integral batetik.



Gatazken dinamikan eta horien trataeran espezializatutako langilez osatutako zentroa da. Haren eginkizuna gizarte- eta heziketa-eragileak trebatzea da, sare soziala indartzeko eta herritar aktibo, kritiko eta bake-erakitzaileen oinarriak finkatzeko.

Bakeolaren ekintza bake positiboaren kontzeptuekin bat eginez garatzen da. Kontzeptu hori justizia sozialaren eta berdintasunaren printzipioetan oinarritzen da, bai eta gatazkarekiko ikuspegi sortzailean ere, ulertzen baitu gatazkak aukera ematen duela desberdintasunak sortzen dituzten goerak aldatzeko eta eraldatzeko.

Bizikidetzak hobetzeko, giza eskubideak sustatzeko, komunitatea garatzeko eta gizartearen erakitzeko prozesuak bultzatzen ditu; azken batean, bakearen kultura sustatzeko.

www.bakeola.org / bakeola@bakeola.org



GERNIKA GOGORATUZ. BAKEAREN ALDEKO AZTERTEGIA.

Gernika Gogoratuz elkarteak bakearen aldeko ikerketa-zentro bat da, 1987an sortua, Gernika bonbardatu zuteneko 50. urteurrenean. Bakearen kulturaren eta memoriaren arloetan egiten du lan, eta ikerketak egiten, prestakuntza ematen eta komunitatean esku hartzen aritzen da.

Aztertegi edo ikerketa-zentroak Gernika Gogoratuz Fundazioaren babesarekin du. Helburua du, Gernikako hiriarekin eta/edo ikurrarekin lotuta gogoeta zientifikoak sortu edo bermatzen dituen ekarpenez baliatuz, emantzipatzera eramango gaituen bake justu bat lortzen laguntzea mundu eta Euskal Herri mailan.

www.gernikagogoratuz.org / info@gernikagogoratuz.org

ERRAZTAILEAK ETA/EDO DINAMIZATZAILEAK:

Iñigo Retolaza

Iñigo Retolazak 20 urte baino gehiago daramatza nazioarte mailan erraztaile-lanak egiten hainbat prozesutan, hala nola laguntza pertsonalean, antolaketa-ikaskuntzan, eta elkarrizketa soziopolitiko eta instituzionala gatazka-egoeran eta aniztasun soziokultural handiko testuinguruetan murgilduta dauden eragile askotarikoen artean. Urteen joanean hainbat herrialde eta kontinentetan bizi eta lan egin du komunitate indigena-nekazariekin, gizatalde marjinaluekin, nazioarteko GGKE eta emaileekin, eta sektore pribatu, sistema politiko eta erakunde publikoekin. Euskal Autonomia Erkidegoan, elkarrizketarako eta solas publikorako zenbait espaziotan aritzen da erraztaile, bai eta euskal gatazkaren ondorioak prozesatzeko helburuz antolatzen diren herritarren arteko topaketetan ere.

iretolazae@gmail.com

Alex Carrascosa

Bakearen aldeko artibista (artista eta aktibista). Herritarren partaidetzarako, gatazken eraldaketa KreAktiborako eta elkarrizketarako prozesuen diseinatzaile eta erraztaile da; hainbat herrialdetan aritu da, eta Latinoamerikan, esaterako, hogeiren bat esku-hartze egin ditu. Berak sortua da 'Dia-Tekhne · Artearen bitarteko elkarrizketa' metodologia, Gernika Sareak argitaratua (2010). Arte Ederretako masterra du, eta artista kolaboratzaile izan da Guggenheim Bilbao Museoan (2002-2011). ArtamugarriaK eta BatzART! ekimenak sustatu zituen 2006ko bake-prozesuan. Berak koordinatu zuen "Itsasoratze Artibista" Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburutzan. Gaur egun, gatazken eraldaketarako eta elkarrizketarako prozesuak errazteko lanean zenbait teoria eta prozesu hibridatzea du ekarpenik handiena: Design Thinking izenekoa, 'U' Teoria, Process Work deritzona, Antzerki Foruma eta beste teknologia sozial batzuk.

alexkarrasosa@gmail.com

LAGUNTZA TEKNIKOA ETA KOORDINAZIOA

Bestalde, azpimarratzekoa da bi pertsonak emandako, eta horrelako ariketetan funtsezkoa den, laguntza teknikoak: Idoia Orbe Narbaiza (Gernikako Bakearen Museoa) eta Andreas Schäfer (Gernika Gogoratuz). Eta, azkenik, koordinazio eta gidaritza instituzionalaz Maria Oianguren Idigoras (Gernika Gogoratuz), Iratxe Momoitio Astorkia (Gernikako Bakearen Museoa) eta Rocío Salazar Torre (Bakeola) arduratu ziren.

05

EKIMENAREN GARAPENA

**AURREKARI INSTITUZIONALA. AURRETIAZ
IZANDAKO BESTE EKIMEN BATZUETAN
OINARRITU ZEN HASIERAN MEMORIALAB,
BATZUK GURE LURRALDEKOAK (GLENCREE
ESPERIENTZIA³, BAKEAZ BLAI⁴ ...), ETA BESTE
BATZUK MUNDUAN HAN-HEMEN EGINAK:
GUATEMALAN, VISIÓN GUATEMALA⁵ ; EL
SALVADORREN, MUSEO DE LA PALABRA Y
LA IMAGEN⁶; HEGOAFRIKAN, INSTITUTE FOR
HEALING OF MEMORIES⁷ ; IPAR IRLANDAN,
TOWARDS UNDERSTANDING AND HEALING⁸.**

MemoriaLab ekimena 2013an sortu zen, Bakeola eta Gernikako Bakearen Museoa lankidetzan hasi zirenean lan-prozesuari hasiera emateko lehen topaketa pilotu bat antolatzeke asmoz. Topaketa pilotu hartan euskal gizarteko hainbat pertsona esanguratsu elkartu nahi genituen, “barnetegi-laborategi sozial” moduko dinamika pilotu bat sortu, eta han, “Glencree”⁹proiektuaren, Bakeaz Blai¹⁰ ekimenaren edo barnetegi teknologiko baten antzera, memoria sozial bat eraikitzeke bidean ezinbestekoak diren gai edo auziak landu, bi eguneko lan-saioan.

“Barnetegi-laborategi sozial” bat sortu eta abian jartzea zen hasiera hartan planteatzen genuen tresna nagusia. Herriz herri eta hiriz hiri egingo genuen, eta herritarrek, adin eta sentsibiltate politiko guztietakoek, motibazio politikoko indarkeriarekin zerikusia duten oroitzapen oraintsukoak kontatu ahal izango zituzten, inguru eta giro babestu, bare eta errespetuzko batean. Hainbat gai landu ahal izango ziren topaketa haietan: biktimak (haien testigantza eta errekonozimendua), presoak eta preso ohiak, gizarte-mugimenduen ekarpena (gazteenak, adinekoenak, bakearen aldekoak...), hezkuntza, memoria horren testigantzak eta objektuak, indarkeriaren inpaktua, gizarte-ehuna berregitea, etab. Laburbilduz, oraintsuko indarkeriaren historiaz hitz egiteko balioko zuen barnetegi-laborategi sozial bat antolatzea zen gure nahia.

Egitasmoaren osagai garrantzitsuenetako bat barnetegi-moldean elkartzea izan zen. Aterpetxe batean egitea pentsatu zen, horrelako inguru “babestuetan” errazagoa izaten baita parte-hartzaileen artean konfiantza-giroa eta harreman estuagoa sortzea, eta hala, indarkeriazko gure iraganarekin lotutako gaiez eta memoria eraikitzeke prozesuekin lotutakoez hitz egitea.

3. <https://www.eitb.tv/es/video/glencree/4104874148001/49310/glencree/>

4. <https://www.youtube.com/watch?v=S2RpXqX0lkc>

5. <http://www.democraticdialoguenetwork.org/app/documents/view/es/424>

6. <http://museo.com.sv/es/>

7. <http://www.healing-memories.org>

8. <https://thejunction-ni.org/towards-understanding-healing/>

9. Martín Beristain, C.; Bilbao Alberdi, Ibáñez de Opacua, J. (2015): Ondas en el agua. Un análisis de la experiencia Glencree, ICIP Barcelona: Eines de Pau, Seguretat i Justícia
http://icip.gencat.cat/web/.content/continguts/publicacions/lilibres/eines/eines15/EINES15_01_09-15interact-FIN.pdf

10. Ruiz, G.; Salazar, Rocio (2014): “Bakeaz Blai. Programa pedagógico con víctimas educadoras en- Oñati Socio-Legal Series, v. 4, n. 3 (2014) – Restorative Justice in Terrorist Victimisations: Comparative Implications
<http://opo.iisj.net/index.php/osls/article/viewFile/292/420>

HELBURU HAUEK LORTU NAHI GENITUEN EGITASMOAREKIN:

1. Elkarrizketa prozesuak eta herritarren parte hartzea sortzea eta sustatzea.
2. Iragana modu kritikoan berrikustea eta bizi izandakoari buruzko gogoeta kolektiboa sustatzea.
3. Prozesurako behar diren elkarrizketa- eta partaidetza-tresna pedagogikoak landu eta partekatzea.

TOPAKETAZ TOPAKETA, MEMORIALABEN METODOLOGIA BALIOZTATZEN

Metodologia zenbait topaketa eta tailerren bidez diseinatu zen:

Berriz (Barnezabal Erretiro-Etxea, 2013ko azaroa)

Lehenbiziko tailer-laborategia izan zen, 2 egunekoa, eta erraztaile-lanetan hainbat profesional independente izan genituen lagun, hala nola Esther Canarias (sistematizazioa), Gregorio Armañanzas (traumaren belaunaldiarteko transmisioa), Julian Ibañez de Opacua (biktimekin elkarrizketa) eta Asier Gallastegi (lankidetzako kooperatiboa), bai eta lantalde eragileko Idoia Orbe eta Rocío Salazar ere (talde-prozesuak). Tailer honetan oinarrituta diseinatu ziren, gero, topaketaz topaketa garatutako metodoetatik zenbait.

Guztira 30 pertsonak hartu zuten parte, denak ere bakearen eta giza eskubideen arloarekin lotutako erakundeetakoak. Zuzeneko bi biktima ere izan ziren topaketan, beren testigantza ematen: Axun Lasa eta Carmen Hernández.

Pernan Goñik egin zituen marrazki horiek, Graphic recording teknika artistikoa erabiliz. Barnetegian sortzen ziren ideiak islatzeko egiten ziren marrazkiak. Lekuan bertan egin ziren, unean bertan. Hona hemen, adibide modura, Berrizko barnetegian egindako beste marrazki batzuk.

No hacer
política-espectáculo

No DAR:
No dejarse llevar.

• EUSKERA
despolitizar.

• LIDERAZGOS
nuevos.

• BERTSOLARIS
nuevos contenidos.

• RELATO
inclusivo
de todos los
relatos



3 ideas:

- Trabajar ámbito local

- Tema TORTURA más invisible. → MULTIFOCAL

- Deslegitimar VIOLENCIA
no debe desembocar en PASIVIDAD.



* Cómo TRANSMITIR el RELATO

* Acercarnos a esas personas solas.

* Niños. Plantear un Relato
desideologizado, objetivo.
JAMÁS DESDE LA NEGATIVIDAD.

Ama,
zergatik?
...





LA REALIDAD

MIDIBLE

CONSENSUADA

④

SUEÑOS

SUBJETIVO

SISTEMAS DE CREENCIA

SUBTIL

ESSENCIA

Bilbo (2014ko ekaina)

Lehenbiziko MemoriaLaben parte hartu zuten erakunde eta erraztaileekin bilerak egin genituen, metodologia baliozkotzeko eta ikusteko ea beste erakunderen bat ere gehituko zen ekimenera (Bakeola eta Gernikako Bakearen Museoaz gain), MemoriaLab tailer-laborategi berriak garatzen laguntzera.

Gonbidatu genituen erakunde eta erraztaile guztien artetik (Lokarri, Baketik, Geuz, Argituz, INCYDE, Korapilatzen...), Gernika Gogoratuz ikerketa-zentroak, Iñigo Retolazak eta Alex Carrascosak eman zioten baiezkhoa Bakeolarekin eta Gernikako Bakearen Museoarekin batera bide berri horri ekiteko erronkari.

Ereño (Zuarte baserria, 2014ko ekaina)

Natura betean, 2 eguneko tailer honek lehenbiziko esperientzian baliatu gabeko metodologia batzuk esploratzeko balio izan zuen: Process Work deritzona eta konstelazio sistemikoak, euskal gatazkari aplikatuta. Erraztaile-lanetan Yago Abeledo, Iñigo Retolaza eta Alex Carrascosa aritu ziren. Espazio horretan hasi zen forma hartzen nola erabili alderdi sinboliko-artistikoa bizipenak integratzeko metodo gisa. Tailerrean 20ren bat pertsona bildu ziren, lehenbiziko tailerrean ere ibiliak batzuk, baina bestelakoak ere bai, talde-prozesuen errazte-lanak egiteko metodo berritzaileak prozesu konplexuetara nola aplikatu jakiteak erakarrita.

Abanto Zierbena (Sanfuenteseko eskola zaharrak, 2014ko azaroa)

Egun bakarreko iraupeneko tailer honetan, diseinu berria aplikatu zen aurrenekoz. Erraztaile-lanetan Iñigo Retolaza eta Alex Carrascosa aritu ziren, eta hiru erakunde eragileetako zenbait kidek hartu zuten parte, bai eta beste zenbait gonbidatuk ere. Metodologia baliozkotzeko balio izan zuen, eta aukera eman zigun, alde batetik, ohartzeko zeinen zaila den gai hauetaz hitz egitea eta, bestetik, ikusteko zenbateko erresistentzia jartzen dugun gizabanako moduan gai hauei heltzean.

Gernika (Astra / Bakearen Museoa, 2015eko apirila)

Gernika Gogoratuz zentroak antolatutako Kulturaren eta Bakearen Nazioarteko XXV. Jardunaldiak, *Askatasuna, adierazpena eta esfera publikoa* izenekoak, aterki gisa balio izan zigun, Process Work deritzonaren bidez metodologia sakonago esploratzeko. Erraztaile-lanetan Gill Emslie (Findhorn Fundazioa) eta Iñigo Retolaza aritu ziren. Bi saio egin ziren, bakoitza egun batekoa, eta bata irekia izan zen (bertaratu gehienak graduondoko ikasleak ziren), eta bestea, berriz, nagusiki bakearen eta giza eskubideen arloan diharduten erakundeei bideratua.

Guztira 21 pertsona bildu ziren saioetan, eta, batetik, aplikazio metodologiko berriak esploratzeko, eta bestetik, bi gauza agerian uzteko balio izan zuten:

I) nola erreproduzitzen ditugun txandaka, modu inkontzientean, taldearen baimen (in)kontzientearekin, biktimaren eta biktimarioaren rola, eta,

II) zeinen beharrezkoa den barne-lana egiteko dinamikak txertatzea, modu are esplizituagoan, gatazken eraldaketan diharduten profesionalen artean

Gernika eta Bilbo (Gernikako Bakearen Museoa eta Bolunta, 2016ko maiatza)

Sei pertsonaren barne-prestakuntza, kideon artean esperientziak, metodologiak eta jakintzak partekatzeko, Ipar Irlandako Towards understanding and Healing-eko prestakuntza-koordinatzaile Eamonn Baker-ekin.

Eamon Bakerrekin
(Towards Understanding and Healing,
Ipar Irlanda) egindako saioa.



06

NOLA

FINANTZATZEN DA
MEMORIALAB?

Egin diren topaketak era askotara finantzatu dira. Gehiena Eusko Jaurlaritzako Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak sustatzen dituen finantzabideen bitartez lortu zen: Udalen arloko Elkarrekin Bonuak (Abanto Zierbena, Gernika-Lumo) eta Herritarren Partaidetzaren arloko Elkarrekin Bonuak (Landetxa auzo-elkartea, Irun). Bestalde, Madrilgo Udalak, AIPAZ elkartearekin batera (Bakearen aldeko Ikerketarako Espainiako Elkarte), MemoriaLab-Madrid esperientziari laguntza eman zion. Eta Bakearen aldeko Kataluniako Nazioarteko Institutuak (ICIP), Bartzelonako Udalarekin lankidetzan, MemoriaLab-Medellín antolatzeke modua eman zuen.

Metodologia diseinatzeko prozesu osoa eta prestaketa-lan guztia egin ahal izan bazen, erraztaileek pro bono egindako lanari eta erakundeek berek emandako funtsei esker izan zen. Lortu ahal izan ziren funtsak mugatuak izan ziren, eta ezin izan zen ekimena erabat garatu. Lantalde eragileak, alabaina, ezin bikainago kudeatu zuen guztia, konpromiso eta sormen izugarritz.

07

NORK

HARTU ZUEN

PARTE

TOPAKETETAN?

Oro har, topaketak irekiak ziren; hau da, edonor joan zitekeen norberaren izenean (ez erakunde edo instituzio batenean). Deialdi publikoaz gain, erakunde eragileek egoki zeritzen pertsonen zuzenean helarazi zieten gonbidapena (agintari eta administrazio-teknikari direlako, edo ikertzaileak, buruzagi sozialak, iritzi publikoaren sortzaileak, gaian aditu edo erreferentziak, talde-prozesuetan erraztaileak, etab.). Bestalde, taldeak egitean zenbait irizpide hartu ziren kontuan, sektore sozial eta politiko askotarikoak ahalik ondoen ordezkatzuta egon zitezen.

EUSKAL GIZARTEAREN ORDEZKARITZA SISTEMIKOA

Herritarren topaketetan talde txikiak egin ziren (15-18 pertsona, gutxi gorabehera). Talde bakoitzean era askotako jendea zegoen, alderdi ugari dagokienez: ideologia, iritzia, sektorea, adina, generoa, bizipenak, lanbidea, jatorria... Horixe da, hain zuzen, Memorialaren bereizgarrietako bat: ahots guztiak, bizipen guztiak, memoria guztiak biltzea.

GENEROA, BELAUNALDIA ETA JATORRIA

Gizon eta emakumeen kopurua orekan egotea, jatorriari dagokionez parte-hartzaileak askotarikoak izatea, eta zenbait belaunalditako jendea biltzea lortu zen: diktadura frankista pairatu zuen jende nagusia, ETaren indarkeria eta estatu-terrorismoa (GAL, BVE, Triple A) bizi izan zuen jendea, eta ETak jardun armatua behin betiko utzi osteko fasean hazi diren gazteak.

08

PREMISA

METODOLOGIKOAK

**TOPAKETETAN PARTE
HARTZEN DUTEN
PERTSONENGAN
ESPERIENTZIA ERALDATZAILE
BAT ERAGITEA DA
HELBURUA, ETA
MEMORIALAB METODOAK,**

“Baina ohartzen ez bagara etengabe aldatzen ari diren pentsaerak direla gure teoriak, esperientziari, oro har, forma ematen diotela, orduan, gure ikuspegia mugatua izango da. (...) Argi dago edozein pentsaera-kantitate (insights) izan dezakegula. Eskatzen dena ez da pentsamendu integratze bat, edo halako batasun inposatu bat, zeren eta edozein ikuspegi inposatu, berez, beste zati bat baizik ez bailitzateke izango. Aitzitik, gure ikuskera desberdin guztiak errealitate bakar bera ikusteko modu desberdintzat hartu behar dira; horietako bakoitzak nagusitasun-maila bat du, eta horretan, argiak eta egokiak dira.”

David Bohm, 1980

BEGIRADA SISTEMIKO-KONPLEXUA

Euskal gizartea sistema sozial bizi bat da, etengabe aldatzen eta mugitzen ari den sistema bat, alegia; horra abiapuntuko gure ikuspegia. Horregatik, taldeak eratzean, gizartearen egitura askotariko hori ordezkatzeari lortu nahi zen. Talde-prozesuan, lan egiteko abiapuntua gertaera objektiboak ziren (gatazkako gertaerak), egiaztagarria edo hautemangarria den hori; eta, gero, oinarri faktiko horretatik abiatuta, taldearen eremuan zeuden elementu hautemanezinak esploratzeari ekiten zitzaion (emozioak, iraganarekiko asoziazioak, traumak, sentimenduak, beldurrak, sentazio sentituak...). Inplizitua zen hori esplizitatzeko lan horri esker, hainbat kontakizun, sentimendu, bizipen eta abarren arteko interkonexio ezkutukoak edo oso sotilak azaleratu ziren, denon begien aurrean. Agerian geratu zen, halaber, iraganeko gertaeren eta oraingo errealitatearen arteko erlazio sistemikoa (edo “gertatu zitzaidan horrek nola eragin duen ni orain naizena”).

IKUSPEGI INTEGRATZAILE BAT

Oinarritzat giza eskubideekiko errespetua izanda, MemorialLab ekimenak askotariko begiradak eta egiak deitu zituen. Erakunde eragileek funtsezko terminoen definizio adostua landu zuten (esparru etikoa, memoria, biktima, biktimarioa, motibazio politikoko indarkeria...), baina parte-hartzaileek, espazioak horretara bultzatzen baitzuten, lasai adierazi, partekatu eta zalantzan jar zitzaketen norberaren definizio, esperientzia eta “egiak”, bizi izandako iraganaz zuten ulerkerari eta oroitzapenei zegokienez. Horrek espazio erabat demokratikoa sortzeko modua eman zuen, ahots guztiak, zatikako egia guztiak entzunak izateko aukera izan baitzuten; aurkituko zuen horietako bakoitzak zein zen bere lekua, zenbatekoa bere balioa eta zenbateraino zen egoki, bizi izandako errealitatearen parte bat esplikatzeko garaian.

Espazio seguru eta polifoniko hori sortzetik etorri zen gero, tarteka, bertaratutako guztien artean egia adostuak azaleratzen hastea eta eratzea. Kontakizun eta memoria indibidualek ekarri zuten, gero, guztien arteko kontakizun kolektibo bat eratuz joan zedin lortzea (memoriaren erakuntza soziala). Hala, integrazioa modu natural eta

organikoan gertatu zen, ez behartuta edo inposatuta, taldeak aurrera egin ahala bizi izandako gatazkaren errealitate konplexuari zentzua emateko bidean.

IKASKUNTZA KOGNITIBO ETA KORPORALA, BATERA

Memorialab metodoak zenbait diziplina metodologiko batzen ditu, eta berritzaile eta aitzindari da horretan. Diziplina horietako batzuk ezagunak dira memoriaren arloan (testigantzen biribila, storytelling edo kontakizunen kontaketa), eta beste testuinguru batzuetan erabili ohi dira beste zenbait: U Teoria, Process Work, gorputz-lana, artea eta sormena, elkarrizketa demokratikoa... Talde-prozesuaren diseinuan eta errazte-lanean metodo horiek batzeak aukera eman zuen bi alderdi integratzeko: alderdi kognitiboa (uste eta iritzien sistema) eta alderdi korporala (maila intra- eta interpertsonal eta sozialeko harreman-ereduak). Eta horrekin, esperientzia eraldatzaile bat lortu genuen pertsona batzuentzat, eta esperientzia barne-mugiarazle bat beste batzuentzat.

SEGURTASUNA ETA BARETASUNA

Ezinbesteko bi ezaugarri izan ziren horiek. Topaketetan parte hartu zuen jendeak seguru sentitu behar zuen, norberak gatazkarekin eta indarkeriarekin izandako esperientzia modu ireki, bare eta konfidentzian kontatzeko espazioa baitzen. Giro hori deialdia egiteko prozesuan bertan hasi ginen lantzen, eta topaketaz topaketa erdietsi zuen goren. Erraztaileen lana funtsezkoa izan zen horretan. Jarrera pertsonala ere garrantzitsua izan zen, bai eta topaketetarako aukeratutako lekuak ere: erretiro-etxeak, natura-inguruneak, hiri-ingurunean egonagatik nor bere baitan biltzera eta barne-elkarrizketara bultzatzen duten espazioak... Ingurune fisikoa aldatzeak begirada zabalago batekin hastea ekarri zuen, eta lagungarri gertatu zen jendea aldeztu aurretik ez estigmatizatze, pertsona bakoitzak bere eguneroko ingurunean bete ohi dituen rol sozial, politiko eta ideologikoen arabera (aurre)iritziak alde batera uzteko.

BIZIKIDETZA LINGUISTIKOA

Bizikidetza linguistikoa bizikidetza sozialetik bereizezina da.

Iñigo Urkullu, Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaria

Lurralde berean bizi diren komunitate soziokulturalen bizikidetza izanik helburua, hizkuntzaren tratamenduak garrantzi handia du. Horregatik, Euskal Autonomia Erkidegoan ofizialak diren bi hizkuntzetan egiteko aukera eman eta babestu zen topaketetan: euskaraz eta gaztelaniaz. Parte-hartzaile bakoitzaren komunikazio-hizkuntza errespetatzean oinarritu zen espazioa; hemen, Hegoaldean, euskara eta gaztelania izan ziren, baina frantsesa gehitzeko ere prest geunden jardura Ipar Euskal Herrian egitekoa bazen.

DENBORAREN KUDEAKETA ZIRKULARRA

Hasiera batean, analisia zer denbora-garairi egokitu zehaztean, arreta-gunea nagusiki azken hamarkadetan bizi izandako motibazio politikoko indarkerian jartzea zen asmoa. Tailerrak egin ahala, alabaina, arku kronologikoa zabalduz joan zen (Gerra Zibila, diktadura frankista gaurdaino).

Pentsamendu linealak (eta horixe da nagusi gure gizartean) denbora modu sekuentzialean banatzen du, hiru aldi modukotan (iragana, oraina eta etorkizuna); baina pentsamendu ez-linealak (fisika kuantikoa, mundu-ikuskera indigena, pentsamendu sistemikoa, memoria kolektiboa) oso bestelako ikuskera du denboraz: aldi horiek guztiak ez dira sekuentzialak, baizik eta etengabe elkar elikatzen eta elkarri eragiten diote, askotan modu inkontzientean, orainetik. Hain zuzen, orain honetatik (hemen eta orain) erlazionatzen gara iraganarekin, historiografiaren eta memoriaren bitartez; eta orain honetatik (hemen eta orain) proiektatzen dugu geroan pentsatuz etorkizunerantz. Alegia, memoria eta prospekzioa orainean gertatzen dira. Iraganaren eta etorkizunaren irakurketa eta bizipena orainean gertatzen dira, behin eta berriz.

Memorialabek erlazio horiek esploratzen ditu, eta aldien arteko lotura horiek esplizitu egiteko aukera ematen du. Horrek aukera ematen du ohartzeko indarkeriazko iragan horrek, askotan, beldurragatik, isilik gordea eta ahantzia, axolagabekeriagatik edo lotsagatik, eragin egiten digun oraingo gure identitatea eraikitzean, izan identitate indibiduala, edo kolektiboa.

Bestalde, gainera, oraineko baldintzak nolakoak diren, halako irakurketa egingo eta halako harremana izango dugu iraganarekin eta etorkizunarekin, eta posible da prozesu egokiak sortzea, iragan traumatiko hori berrikusten lagundu diezaguten, orain sortzaile batetik, iraganeko gertaerekin dugun harremana eraldatzeko.

Memoria indibidual (kontakizun) horrek ezinbestekoa du espazio kolektibo bat, beste memoria indibidual batzuekin elkartzea, elkarri eraginez denak osatu eta zentzua emateko (guztien arteko kontakizuna). Horregatik da garrantzitsua gatazka bizi izan zutenek elkarrekin hitz egiteko espazio bareak sortzea, oztopoak gaingintzeko eta adiskidetzeko dinamikak erraztu nahi badira.

Hala, denbora-aldiei lotutako 3 galdera esploratu ziren topaketetan:

- 1. Zer gertatu zen?**
- 2. Zertaz ohartu gara?**
- 3. Nola erabil dezakegu ikasi dugun hori etorkizunean?**

Denboran hiru une/aldi horiek esploratzeaz gain, Memorialaben errealitatearen hiru dimentsio ere esploratzen dira (Mindell, 2000).

Zer gertatu zen?
(historia eta memoria)



Nola erabil dezakegu ikasi dugun hori etorkizunean?
(integrazioa eta begirada prospektiboa)

Zertaz ohartu gara?
(ikaskuntza emergentea eta eguneratzea)



ERREALITATEAREN HIRU DIMENTSIOAK

Errealitate objektiboa (errealitate adostua). Denok ikusten eta denok egiazat daukaguna. Hemen sartzen dira gatazkaren gertaera zehatzak, legeak, gizartearen egiturazko esparruak...

Alderdi emozional eta inkontzientera jaistea (ametsen lurraldea, subjektiboa den hori). Dimentsio (inter)subjektiboa da hau; gizabanako bakoitzak nola bizi duen errealitate objektiboa. Gure kasuan, gatazkaren gertaerekin (errealitate adostuarekin) lotuta dauden emozioak dira, baita traumak, asoziazio subjektiboak, memoriak, rolak, etab. ere.

Alderdi transpertsonal eta ez-dualarekin konektatzea (esentzia, bat egitearen dimentsioa). Dimentsio transpertsonala da hau; hemen, gatazkarekin lotuta banaka izan ditugun bizipen zatikatuak osotasun batean diluitzen dira, eta horrek aukera ematen du besteren minarekin, besteren bizipenarekin konektatzeko. Isiltasun beteko uneak dira hauek taldean. Ohartzekoa gatazkak jende askori eragin diola. Osotasun-sentimendua azaleratzen da dimentsio honetan, denok osotasun baten parte izatekoa, denok sufrimenduzko ontzi berean goazela eta modu kolektiboan gaingitu beharra dugulako sentimendua. Interkonexio horretan aritzeak esperientzia baliagarriago bat sortzeko aukera ematen du: esperientzia osoagoa eta sendatzen laguntzeko hobe.

BELAUNALDIEN ARTEKO ELKARRIZKETA

Memorialaben helburuetako bat topaketek belaunaldien arteko elkarrizketa sustatzeko balio izatea da, elkarrizketa horrek lagundu egingo duelakoan iraganean gertatutakoa modu sistemiko-konplexuan ulertzen. Belaunaldi guztiek gatazka desberdin bizi izan dutela eta, haien arteko elkarrizketa funtsezkoa da, berriro ez gertatzeko bermeak finkatu nahi badira. Bestalde, belaunaldien arteko lan horrek lagundu egiten du agerian jartzen eta ulertzen nola gatazkaren trauma belaunaldiz belaunaldi transmititzen den, eta horrek nolako eragina duen, bai identitatearen eraketan, bai oraingo eta etorkizuneko belaunaldien harreman-dinamiketan.

ALDERDI SINBOLIKOA INTEGRATZEA ETA ADIERAZTEA, ADIERAZPEN ARTISTIKOAREN BIDEZ

Memorialab metodologiaren beste ezaugarri garrantzitsuetako bat alderdi sinbolikoa adierazpen artistikoaren bidez kudeatzea da. Memoria fenomeno subjektibo eta hautemanezin edo egiaztaezina denez, zaila da soilik hitzen bidez modu arrazional edo objektiboan adieraztea. Nolabait esatearren, hitzak batzuetan motz gelditzen dira orainean oroitzapen, memoria, sentsazio edo sentimendu iragan bat partekatu nahi denean. Alderdi sinboliko hori guztia, eta memoriak mugiarazitakoa biltzen duen konplexutasun guztia, errazago integratu du pertsona batek maila indibidualean eta gero komunikatu maila kolektiboan adierazpen artistikoaren bidez.

09

NOLA

EGIN ZIREN
TOPAKETAK?

TOPAKETEN IRAUPENA ETA EGITURA

Laborategi bat izanik, berritzailea eta aitzindaria, MemorialLabek formatu bat baino gehiago erabili ditu, egun batekoa eta bi egunekoa.


Talde-prozesuak beti lau fase izaten ditu, bai topaketa egun batekoa denean, bai eta bi egunekoa denean ere:

- Gaiak kokatzea
- Aragana gogora ekartzea
- Gatazkako rolak esploratzea
- Adierazpen artistikoaren bidez bizipena integratzea

Fase guztiak erraztaile batek bideratzen ditu, elkarri lotutako zenbait metodo erabiliz.

Gaiak kokatzea

Ariketa zertarako den azaldu eta parte-hartzaileek txandaka beren burua aurkeztu ondoren, prozesuaren lehen urratsari ekiten zaio: mapaketa egitea. Gorputz-dinamika baten bidez egiten da mapaketa: parte-hartzaileek fisikoki kokapen bat hartzen dute espazioan, erraztaileak esandako postulatuekiko hurbiltasunaren arabera. Fisikoki kokatze horri esker, taldeko kideak erraz mapea daitezke, eta hortik abiatuta leku/postulatu batean eta ez beste batean zergatik kokatu diren aztertu, horren argudioak garatu. Dinamikaren hasieran mapaketa soziala egiten da (generoa, adina, lanbidea...), eta gero, gai zehatzei heltzen zaie, eta haiekiko jarrera edo kokapenean sakontzen da. Gaikako mapaketa horretan erabiltzen diren postulatu batzuk hauek dira:



Postulatu horiek guztiek, eta parte-hartzaileak leku jakin batean kokatzeko, gaiei buruz dauden argudio eta ikuspegiak esploratzeko baldintzak sortzen dituzte. Nolabait esatearren, erraztaileak postulatu horietaz baliatzen dira, “sarrera-puntu” gisa, funtsezko terminoen gainean lehen elkarrizketa bat sortzeko. Eta, gainera, oinarrizko kontzeptuei buruz (biktima, gatazka, memoria...) taldeak dituen zalantzak edo ezagutza-gabeziak kokatzeko ere balio du. Topaketa batzuetan gertatu izan da une honetan jada mugimenduak gertatzea, jendea kokapenez aldatzea, beste pertsona batzuek beste argudio/kokapen batzuetatik emandako azalpen edo arrazoiengatik. Elementu sotilagoak ere hasten dira mugitzen, hala nola parte-hartzaileek biktima, estigma, memoria eta gainerako terminoei dagokienez iraganarekiko dituzten sentimendu eta asoziazioak.

Iritziak eta jarrerak mapatzeko dinamika horrek giroa “berotzen” du, eta aurrerago sakonago lantzen diren zenbait gai argi eta garbi kokatzeko aukera ematen du. Lagungarria da, halaber, topaketaren helburuei eta edukiei buruz kokatzeko ere. Aukera ematen du jakiteko, besteak beste, espazio horretan daudenak nor diren, zer ahots dauden eta zein ez, zer buruzagitza-mota dauden, batzuek eta besteek nola erreakzionatzen duten entzundakoarekiko, seinale bikoitzak transmititzen diren, zenbateraino ezagutzen dituzten terminoak, etab.

Amaieran, dinamika osatzeko, taldeko esplorazio-lana egiten da, oinarrizko galderatik abiatuta: **“Ariketa honen bidez zertaz ohartu zara?”**

Iragana gogora ekartzea

Atsedenalditik itzultzean, taldea biribilean eseri eta txandaka testigantzak entzuteari ekiten zaio. Testigantza ematen aurrea erraztailea izaten da, ariketaren “tonua” zein izango den adierazi eta saioa “moldatzeko”. Topaketa baino lehen, parte-hartzaile bakoitzari eskatzen zaio egin dezala gogoeta bere bizitzan eragin nabarmena izan zuen gatazka-gertaera bati buruz. Eta eskatzen zaio, halaber, ekar dezala bizipen esanguratsu hori sinbolizatuko duen objektu bat (sarrerako objektua). Erraztaileak bere testigantza eman ondoren, parte-hartzaileek, txandaka, norberaren bizipena kontatu eta objektuak zer lotura duen azaltzen dute, eta, amaitutakoan, objektua biribilaren erdian jartzen dute (denboraren kiribila). Horren ostean, parte-hartzaile bakoitzak objektua erdian utzi ondoren, metalezko ontzi bat jotzen da, haren hotsa entzun bitartean tartetxo bat hartzeko, horrek aukera ematen baitu, 1) entzundakoa pertsona bakoitzaren barnean pausatu dadin, 2) hurrengo parte-hartzailea bere testigantza emateko presta dadin, eta 3) testigantzen txanda mantsoago joan dadin, eta, hala, taldeko giroa testigantza guztiekin “bete” dadin. Parte-hartzaile guztiek beren testigantza eman ondoren, denak tarte batez isilik geratzen dira. Isiltasun horrek aditzera ematen du, nolabait, han dauden guztiak jabetzen direla, modu kolektiboan, gatazkak haietako bakoitzean izan duena eraginaz (esentziaren dimentsioa). Orduan, erraztaileak taldeko elkarrizketari ekiten dio, oinarrizko galderatik abiatuta: **“Zertaz ohartu zara ariketa honen ondorioz?”**

Zati hau intentsitate handikoa izaten da, jendeak bere barnea zabaltzeko eta bere bizipena dimentsio osoan deskargatzen baitu: gatazka-gertaera, zama emozionala, oroitzapenak, sentsazio sentitua, etab. Isiltasunaren indarra eta beste norbaiten bizipen/sufimenduarekiko enpatia bereziki garrantzitsuak dira topaketaren une honetan. Hemen egiten du durundi talde guztiak maila esentzialean, maila transpertsonalean. Taldea testigantzen biribilean iristen da gatazkaren ertz ugariak entzun eta ulertzera, euskal gatazkaren puzzlea osatzen duten egia zatikakoen aniztasunaz jabetzera.



BENEFICIARIO

PERPETRADOR

testigo

DEFENSOR(A)

CHAMA

Bazkaria elkarrekin

MemoriaLab, bizikidetzarako laborategi soziala, testuinguru jakin batean kokatuta dago. Talde guztia mahai beraren bueltan jartzen da, espazio horretan bertan. Denen artean prestatzen dute mahaia, denen artean zerbitzatzen da antolakuntzakoek ekarritako bazkaria. Une informal hori aukera bikaina da testigantzen biribilean sortutako intentsitatearen ondoren giroa lasaitzeko. Eta parte-hartzaile guztiak eroso eta lasai sentitzeko moduko espazio bat sortzeko ere balio du (*jatordua, mahai baten bueltan, aglutinatzaile sozial gisa*).

Gatazkako rolak esploratzea

Arratsaldean, gatazkan zeuden rolak esploratzen dira. Horretarako, rolen oinarritzko egitura bat hartzen da abiapuntu: biktimarioa, biktima, lekukoa, abokatua/defentsaria. Espazioan lau aulki jartzen dira, eta parte-hartzaileak aulkiz aulki joaten dira. Aurrena bakarka egiten dute, isilik, rol horietako bakoitza sentitu eta bizi izateko; gero, parte-hartzaile bakoitzari eskatzen zaio esan ditzala, ozen, rol horietako bakoitzak adierazten dituen ahotsak. Energia jaitsi eta parte-hartzaileek aulkien inguruan biraka ibiltzeari uzten diotenean, taldeko elkarriketari ekiten zaio, oinarritzko galderatik abiatuta: ***“Zertaz ohartu zara ariketa honen ondorioz? Nola sentitu zara rol horietan bizi izandakoan? Zer beste rol daude?”***

Bizipena integratzea, alderdi sinboliko-artistikoaren bitartez

Atsedenaldiaren ostean, taldea berriro biribilera itzultzen da, eta topaketaren azken saioari ekiten zaio. Erraztaileek aipatzen diete arte plastikoak zeinen baliagarriak diren bizipena ikuspegi sinbolikotik integratzeko kanal gisa. Gero, parte-hartzaileei bakarka bizi izan dutena nolabait sinbolizatu, integratu eta adierazten duen objektu berri bat (irteerako objektua) sortzeko eskatu diete. Beti iradokitzen zaie parte-hartzaileei saia daitezela objektuaren bidez begirada prospektiboa ere integratzen eta adierazten (“Bizipen honek zertarako balio dit etorkizunera begira?”).

Horretarako, parte-hartzaile bakoitzak bere irteerako objektua egin dezan, askotariko baliabidez betetako mahaia bat prestatzen da, eguneroko objektuz eta arte plastikoetako elementuz osatua. Normalean, integrazio-fase honi ekindakoan, bisualizazio moduko bat egiten da, erraztaileek bideratuta, parte-hartzaileengan gogoetazko aldartea eragiteko. Parte-hartzaile bakoitzak objektu-sinboloa egitearen bidez prozesua gogora ekartzen du, zentzua eman, guztia integratzeko.

Talde-prozesua berriro biribilean amaitzen da eta, han, parte-hartzaile bakoitzak, irteerako objektua oinen parean daukala, bizipena komentatzen du objektutik abiatuta. Modu horretan kokatuta (parte-hartzaileak biribilean, sarrerako objektuak erdian eta irteerakoak kanpoaldean), oso erraz eta modu grafikoan ikusten da prozesu guztia; hau da, prozesuan nola sartu zen eta hartatik nola ateratzen den.

Azkenik, eta amaiera emate aldera, parte-hartzaileek talde-prozesuari buruzko balorazio orokor bat egiten dute, txandaka.

10

IKASITAKOAK

**URTE HAUEN JOANEAN, MEMORIALAB
EKIMENAREN BITARTEZ ASKO IZAN DA
IKASITAKOA, BAI TOPAKETETAN PARTE
HARTU DUTENEK, BAI ERAKUNDE ERAGILEEK
ETA ERRAZTAILEEK.**

IRAUPENA

Metodoa, hasieran, bi eguneko barnetegia egiteko diseinatu zen, baina bi eguneko taldeak lortzea zaila zela ikusita, egun bakarreko topaketak proposatzen hasi ginen. Zalantzarik gabe, bi eguneko formatua egokiagoa da, emaitza hobeak lortzen baitira: gaiak sakonago lantzeko eta bizipena sendoago integratzeko aukera ematen baitu. Dena den, eskarmentuak erakutsi digu egun bakarreko saioarekin ere lor daitekeela bizipena garrantzitsua izatea parte-hartzaileentzat.

MEMORIALABEN EGOKITASUNA

Ekimena abiatzeko unean, lantalde eragileak esploratu eta kontuan hartu beharreko hainbat galdera zeuzkan gogoan: egokia eta beharrezkoa al da gure iragan traumatikoaz hitz egitea? Zer balio eransten dio eta zertan laguntzen du herritarren arteko elkarrizketak, halakorik egiten badu, bizikidetza eta adiskidetzeta soziala sustatzeari dagokionez? Ez ote da hobe, bada, ahanzte, gogoratzea baino? Zertarako gogoratu? Zertarako ahantzi? Nola senda ditzakegu gure zauri eta isiltze behartuak, kolektiboki heltzen ez badiegu? Nola hautsi gauzak isilean gordetzeko dinamika horiek familiaren eta gizartearen baitan? Nola zabaldu gure barnea beste kontakizun batzuei, gure ideologiaz bestelakoetatik datozela-eta estigmatizatuta ditugun horiei? Nola eraiki zubiak gizarte banandu honetan? Zer dakar MemoriaLabek, abian dauden beste espazio eta prozesu batzuek ez dakartenik?

Galdera horiek uneoro gogoan izan ditu MemoriaLabeko lantaldeak. Galdera horietako asko, euskal gizartearen badaude. Eta topaketetan parte hartu duten askok ere egin dizkio galdera horiek berak bere buruari.

Ekimen aitzindaria da ala, aitzitik, lekuz kanpo dago? MemoriaLab egiteko une egokia da hau? Erantzuna ez dakigunez, parte hartu dutenen bizipenak eta haiek topaketez egindako balorazio positiboa hartuko ditugu aintzat.

BELAUNALDIEN ARTEKO ELKARRIZKETA ETA TRAUMAREN TRANSMISIOA

Aipatu berri dugunaren harira, MemoriaLabek ahalegina egiten du, nahita, topaketak belaunaldien arteko elkarrizketa sustatzeko baliagarriak izan daitezen, gure ustez ezinbestekoa baita hori gure lurralde eta historian gertatutakoa modu sistemikoan ulertzeko. Besteak beste, belaunaldi guztiek gatazka era desberdinean bizi izan dute eta, berriro ez gertatzeko bermeak finkatu nahi badira, funtsezkoa da haien arteko elkarrizketa. Bestalde, belaunaldien arteko lan horrek lagundu egiten du agerian jartzen eta ulertzen gatazkaren trauma belaunaldiz belaunaldi transmititzen dela, eta horrek nolako eragina duen, bai identitatearen eraketan, eta baita oraingo eta etorkizuneko belaunaldien harreman-dinamiketan.

KULTURARTEKOTASUNA ETA MUNDUA KANALA

Nahita ez baina, topaketa guztietan izan da jatorriz atzerritarra den herritarrik (Alemaniakoa, Ekuadorkoa, Kolonbiakoa, Argentinakoa...). Horrek mundua kanala ekarri zion prozesuari, adiskidetzearen nahiz gatazka osteko prozesuen arloetan nazioartean izan diren beste esperientzia batzuk ere bai (Kolonbia, Argentina), eta lagungarri izan zen hemen gertatutakoa distantzia pixka batekin ikusteko. Jatorriz atzerritarrak direnei ere lagungarri gertatu zitzairen, hobeto ulertu ahal izan baitzuten gatazkak gure gizartean izandako inpaktua eta nola eragin dien fenomeno horrek euskal gizarteko harreman-dinamikei. Beste herrialde eta kultura batzuetako jendearekin partekatu eta alderatzeak aberastu egin zuen espazioa, errekonozimendu-dinamika interesgarriak sortu zituen, eta ideologia nahiz identitate zehatzetatik haratago giza alderdia sendotzen lagundu zuen.

“Ni, etxean, euskal gatazkaren gaiaz ez hitz egiten ahalegintzen nintzen. Baina orain konturatzen naiz horrela gauzak ez direla konpontzen, enkistatu eta usteldu egiten dira, eta zuk mina gorde eta besteei transmititzen diezu. Niretzat berebiziko erronka izan da parte hartzea. Ez nekien nola adierazi gertatu zaidan guztia”.

Memorialabeko
partehartzailea

MEMORIA, AHAZTEA ETA IRAGANA BERRIKUSTEKO ERRESISTENTZIA

Azken hamarkadetan Euskal Herrian gertatu denaz hitz egitea izugarri zaila gertatzen da, eta tarteka, oso gogorra. Topaketa guztietan urte hauetan zerbait nabarmen ikusi badugu, horixe da, hain zuzen. Ohartu gara, batez ere, lehen hurbilketa dela benetan zaila dena (“elkartu gaitezen euskal gatazkak norberarengan izan dituen ondorioez hitz egiteko”) gure gizartean hain sendo errotuta dauden estereotipoengatik eta erresistentziengatik; oro har, herritarrei gertatzen zaie zaila, baina baita erakunde eragileei, euskal instituzio publikoei eta alderdi politikoei ere bai.

Eman lezake euskal gizarteak eta sistema politikoak nahiago dutela orrialdea pasatu gertatutakoaren errealtatea irakurtzen amaitu baino lehen; minagatik, lotsagatik, gogorik ezagatik, jada gaiaz nazkatuta gaudelako, edo argi eta garbi hitz egiteko beldurragatik, seguru asko, gaur egungo gizarte-mota honengatik ere bai, gero eta kontsumistago, indibidualistago, azalekoago, buruarinago eta sakabanatutagoa, jaun eta jabe daukagun sistema kapitalista neoliberalaren ondorioz. Badago halako joera bat, aurrera egiteko estrategia gisa, gertatutakoa ahanzi nahi izatekoa, gogoratzekoa baino gehiago; baina estrategia horrek, iragan traumatiko batekiko harremanean aurrerantz ihes egitekoa, ez dakar berriro gertatuko ez denaren bermea. Eta ez dakar, ezta ere, euskal gizartean harreman sortzaile eta demokratikoagoa izateko behar diren baldintzak sortzea. Parte-hartzaile askoren esanetan, Memorialabek lasai hitz egiteko espazio seguru eta barea sortzen du, eta bai jendeari eta bai taldeari berari erraztu egiten dio bizi izandakoa beste pertsona batzuekin partekatzeko erresistentziak eta beldurrak gainditzea.

MAILA INSTITUZIONALAREN ETA PERTSONALAREN ARTEKO ERLAZIOA: MEMORIAREN ERAIKUNTZA SOZIALEAN AURRERA EGITEKO GAKOA

Memoriaren eraikuntza soziala sustatzeko landu beharreko eremu garrantzitsu bat euskal instituzio publikoak tartean sartzea da. Horri dagokionez, erakundeen erantzuna ez da beti bera izan. Badago bakearen, bizikidetzaren eta memoriaren inguruko euskal politika publiko bat, baina erresistentzia politikoekin ere egin dugu topo, eta erresistentzia horiek oztopatu egiten dute, batzuetan, herritarren arteko elkarrizketa-prozesuei heltzen hasi ahal izatea.

ZER ESAN NAHI DU BIKTIMA IZATEAK?

Topaketetan parte hartu duten askok ez daukate argi, antza, zer den biktima izatea. Horrek agerian uzten du euskal herritar askok, gertatu den guztia gertatuta ere eta oraingo bultzada instituzionala gorabehera, oraindik ez duela funtsezko gogoetarik egin horri buruz. Egoera oso bestelakoa da instituzioen eremuan, gai horretan onartutako zenbait definizio oinarri hartuta, argi eta garbi, esparru juridiko eta legal bat mugarritua baitu. Nola gainditu arrakala hori? Nola sortu zubiak euskal herritar askoren ezjakintasun eta axolagabekeriaren eta instituzioen aurrerapausoen artean?

ISILTASUNAREN INDARRA. BI AURPEGIKO TXANPONA

Memoria, ahanztura eta isiltasuna modu intrintsekoan lotuta daude, onerako eta/edo txarrerako. Nolabait esatearren, isiltasuna modu sortzailean baliatu daiteke, baldin eta espazio egoki bat sortzen laguntzen badigu, barnekoa nahiz kolektiboa, (auto)gogoetarako, barne-entzuketarako eta sendatzeko. Hau ere, maila indibidual, kolektibo eta sozialean gertatzen da. Isiltasun-mota horrek memoria oroitzapenezko eta sendatzeko ikuspegitik lantzen laguntzen digu. Bestalde, ordea, txarrerako ere izan daiteke isiltasunaz baliatzea, trauma indibidual eta kolektiboa ez prozesatzera eta ahanztera bagaramatza. Memorialabeko prozesuan, jendea ohartzen da, eta onartzen du, bazela iraganean halako isiltasun behartu bat, isilik egote horretan herritarrek onartu egin zituztela indarkeriazko zenbait jokabide, gizarte osoarentzat ondorio larrikoak.

Memorialaben topaketetan, isiltasunaren erabilera sortzailea sustatzen da, eta introspektzio bareak eta barne-elkarriketak lagundu egiten diete parte-hartzaileei gatazkarekin harremanean izan duten bizipenaz gogoeta egiten. Jendeak asko balioesten ditu une horiek. Halakoetan, inflexio-puntuak izaten dira; "ohartzeko" uneak. Isiltasun eraldatzaile hori, topaketetan parte hartzen dutenek oso aintzat hartua, talde-prozesuko lau uneetan erabiltzen da (gaiak kokatzea, testigantzen biribila, rolak

"Zalantzarik gabe, Memorialab gehiago egin behar da. Atzerrikoa izanda, hona etorri eta gauza bat oso deigarri egiten zait, kosta egiten zait, sumatzen dudana gauza bat, halako isiltasun bat, ia behartua; oso zaila da euskal gatazkaz hitz egitea, eta are gehiago kanpotik bazatoz".

Memorialabeko
partehartzailea

esploratzea eta bizipena integratzea). Isiltasunarekin harremanetan jartzeko bizipen horren kontrakoa da gure gizarteko beste joera hori, ahantzi ahal izatearren gaiaz hitzik ez egitekoa, edota ez gogoratzearren zalaparta bizian ibiltzekoa.

GATAZKAKO ROL GUZTIAK BIZI IZATEA

Memorialabeko ariketetako bat gatazkan izandako rolak aztertzea da. Aurreneko saioetan, bi roleko egitura izan zen abiapuntua: biktima eta biktimarioa. Hortik abiatuta, eta beste topaketa eta tailer batzuk egin ahala, beste rol batzuk agertu ziren (lekukoa, onuraduna, defentsaria). Talde-esplorazioan beste rol batzuk agertzen dira, ez besteak bezain agerikoak edo ikusten hain errazak (rol mamuak), baina esanguratsuak eta argigarriak, esplikatzeko zergatik gertatu zen gertatutakoa (isiltasun behartua, onartzeko lotsa...).

Topaketaren une honetan, egoeraren ezaugarriak horretarako egokiak dira eta, taldeko jende asko ohartzen da denboraren joanean rol bat baino gehiago izan dituela. Horretaz ohartzea, eta onartzea ez garela indarkeriaren biktima soilik izan, beste rol batzuk ere bizi izan ditugula (adibidez, lekuko, indarkeriaren legitimatzaile, biktimario edo indarkeria-eragile...), erabat une kritikoa izaten da topaketetara etorritako jende askorentzat. "Ohartze" horrek harridura sortzen du, sinetsi ezina, zalantza, mina, damua, lotsa, baina baita halako askatze bat ere, sendatzeaz gain. Gertatu izan da zenbait pertsonak komentatzea denbora batez rol jakin bat modu estatiko eta konstante samarrean bizi izan zutela, harik eta beste rol bat bizi izatea egokitu zitzaaien arte, beste identitate bat hartzea, familian gertatutako gorabeherengatik.

Denboraren joanean rolak aldatzea, eta horretarako zergatiak, behin eta berriro agertzen dira Memorialabeko topaketetan. Bizi dugun rolari buruzko ikuskera aldatzea zerbaitek eztanda egin ondoren gertatzen da normalean; izan daiteke bizipen pertsonal bat edo, oro har, euskal gizartearentzat garrantzi handikoa den gertaera bat.

Memorialaben esaten dugu rol horiek rol sozialak direla, gatazkaren historian izan diren uneetan batzuek eta besteek bizi izan dituzten rol sozialak, alegia. Hortaz, rolak ez dagozkio pertsona edo talde bati bakarrik; aitzitik, zenbait pertsonak edo talde sozialek rol jakin batzuk "bereganatzen" dituzte, une sozial eta politiko jakinetan. Pertsona bat rol bat baino gehiago da, eta rol bat pertsona batek baino gehiagok bizi du.

Rolak interkonektatuta daudelako begirada konplexuago horrek lagundu egiten du bizikidetz- eta adiskidetze-prozesuan, agerian jartzen baitu une bat edo bestean euskal herritar askok eta askok pairatu dutela gatazka, askori eragin diela; euskal herritarrek, segun eta zer rol bizi izan duten historiako une eta leku jakin bakoitzean, gatazka gaingaitzen edo erreproduzitzen lagundu dute.





Pernan Goñik egin zituen marrazki horiek, Graphic recording teknika artistikoa erabiliz. Barnetegian sortzen ziren ideiak islatzeko egiten ziren marrazkiak. Lekuan bertan egin ziren, unean bertan. Hona hemen, adibide modura, Berrizko barnetegian egindako beste marrazki batzuk.

BELAUNALDIEN ARTEAN GATAZKA ETA TRAUMA TRANSMITITZEA

Topaketetan, testigantzen biribilean, argi eta garbi ageri ohi da belaunaldien artean gatazka eta trauma transmititu egiten dela. Testigantza batzuk norberaren bizipenera mugatzen dira: norberak zuzenean bizi izandakoa izaten da testigantza. Beste batzuetan, testigantzak entzundako memorian oinarrituta daude, kontatu dieten memoria horretan, ez zuzenean bizi izandakoan, eta iragan eta memoria luze edo aspaldikoago bat oroitarazten dute (zuzeneko senideen sufrimendu eta mina, diktaduraren gehiegikeriek, Gerra Zibilak, erbesteak eta bestek eragina). Oro har, testigantza guztiak zuzenean gertaera traumatiko batean oinarrituta daude, edo badute hortik zerbait: heriotza-mehatxuak jasotzea, bizkartzainekin ibili beharra, bonba-autoz egindako atentatu batean lekuko izatea, diktadura-aldian euskaraz egiteagatik pairatutako indarkeria, familia barruko harremanak haustea, poliziaren gehiegikeria eta tortura, kalean jendea eraila ikustea, erailak izan diren pertsona ospetsuen oroitzapena, atxiloketa bidegabeak, erbeste behartua, estortsio ekonomikoa...

Gatazkaren irakurketa belaunaldien arteko hori are zuzenekoagoa eta intentsitate handiagokoa da taldea zenbait belaunalditako senidez osatuta dagoenean (aitona-amonak, gurasoak, seme-alabak). Bizipen horrek betikotu egiten du gatazka, harekiko dugun jarrera, eta trauma bera. Bestalde, belaunaldien arteko irakurketa horrek taldeko kideak zuzenean interpelatzen ditu, kide bakoitzak aukera baitu traumaren transmisioa eta gatazkarekiko jarrera betikotzen dituen gorpil zoro hori eteteko.

HERRITARREN ARTEKO ELKARRIZKETAREN KULTURA FALTA

Euskal gizartean urritasun edo gabezia nabarmena daukagu horretan, gatazkaren eta indarkeriaren inguruan herritarrek izan dituzten bizipen desberdinez hitz egitearen ohituran. Gizartea polarizatuta baitago. Eta identitate sozial, politiko eta kultural desberdinak modu barean biltzea oztopatzen duen polarizazio hori bera gatazkaren ondorioetako bat da.

Horrelako elkarrizketa-prozesu batean sartzeko erresistentzia dago, baita beldurra eta lotsa ere. Horrek "iraganera itzultzea" eta iragana modu autokritikoan berrikustea dakar.

Euskal gizartearen beste parte bat, berriz, gaiarekin nazkatuta dago, edo gogorik gabe, eta ez du hura elikatzen jarraitu nahi. Etengabeko Tentsio bat dago ahanzi nahi dutenen eta gogoratu nahi dutenen artean, barkatu nahi dutenen eta nahi ez dutenen artean, autokritika egin nahi dutenen eta lehenbailehen orrialdea pasatu nahi dutenen artean

"Biktimen testigantzak edo hitzaldiak, konferentziak, jardunaldiak... Horrelakoetan aurkitu izan ez dudan zerbait eman dit ekimen honek, besteetan hain garbi ikusi ez dudan zerbait: ulertzea zergatik den hemen hain zaila gatazkaz hitz egitea. Eta oso gogoan jarri dit gatazka politikoaren bizipena erabat nahasita dagoela eguneroko harreman pertsonalekin" "(lagunak, senideak, herria...)"

Memorialabeko partehartzailea

"Eman didan segurtasun-sentsazioa inoiz ez dut aurkitu kalean. Jendeak segurtasun hori ematen zidan. Iruditzen zait pribilegiatua naizela honaino iritsi naizelako".

Memorialabeko partehartzailea

GIZARTEAREN SENDATZEA ETA EMOZIONALITATEA

Gurea ere hautsia, mindua, estresatua eta prisaz bizi den gizartea da. Egoera horretan, ez da erraza gatazkan zehar bizitako esperientziak maila emozionalean tratatzea. Are zailagoak dira kontzientzia hartze- eta sendatze-prozesuak horrek besteekin karga emozionala partekatzea esan nahi duenean. MemorialLab ez da ariketa terapeutiko bat; bai, ordea, oraindik sentiberatasun egoeran dagoen jendearentzat elkarbanatzeko eta sentitzeko espazio bat; norberaren sufrimendua gainditu eta, gehiago edo gutxiago, besteen sufrimendu eta bizipenekin konektatzekoa. MemorialLabek Euskadin indartu behar dugun gizartearen sendatzera ekarpen zuzena egiten du.

Horrela, dibertsitate handiko taldeekin (gizartearen errepresentazioa fraktalak) lan egiteak gizarte prozesu konplexuenak lantzen laguntzen du, gizartearentzat eredugarri izan beharko litzatekeen emozioen kudeaketaren bidez egiten baita.

ERAKUNDEEN AHULTASUNA MEMORIALAB MODUKO ELKARRIZKETA-EGITASMOAK AURRERA ERAMATEKO

Ahultasun horren arrazoia horrelako ekimenekiko konpromiso falta da, egitasmoak jarraipena izatea bermatuko duen apustu garbirik ez egotea, deialdi publiko konkurrenteez haratago, eta halakoek, bistan da, izugarri mugatzen dituzte baliabideak eta egitasmoa gauzatzeko epeak. Euskal gizartean ez daude memoriaren eraikuntza sozialean desberdinen arteko elkarrizketa bidez era independentean eta ez-politikoan lan egiten duten erakunde asko. Parte-hartzaile askok, nahiz eta instituzionalizatuta egon, gaitasun eta baliabide gutxi dituzte, eta horrek zailtasunak eragiten dizkie testuinguru sozial eta instituzionalean lan egiteko orduan, oraindik halako ekimenekiko erresistentzia agertzen baitute. Guzti horrek eragin handia dauka ez badu baldintzatzen gizarte zibileko erakunde hauek zer egin dezaketean.

MEMORIALAB METODOA. BENETAN FUNTZIONATZEN DUEN METODOLOGIA BAT

Topaketetan parte hartu duten askok egindako balorazio, elkarrizketa eta testigantzei begiratzea besterik ez dago MemorialLaben premisa metodologikoak zeinen egokiak diren ikusteko, baita zeinen eraginkorra den MemorialLabeko lantaldeak garatutako metodoa, apurka-apurka eta prozesuak aurrera egin ahala ekimenaren helburura egokitua.

"MemorialLaben prozesua koherentea iruditu zait, sendoa. Lekua zeharo bat dator, eta oso lagungarria gertatu da; uste dut denok batera egotea eta batera lo egitea lagungarria dela egoera zailak esploratzen ari zarenean".

Metodo hau, dinamikoa eta prozesu betean, malgua da, eta horregatik, memoriaren eraikuntza sozialari heltzeko baliatu den bezala, egokitu daiteke lantzen zailak diren beste gai eta testuinguru batzuetara ere (genero-indarkeria, trauma eta abusu sexualak, bullyinga edo eskola-jazarpena, mobbinga edo laneko jazarpena, belaunaldiarteko trauma, arrazakeria...). Halaxe egin eta bizi izan genuen MemorialLab-Medellín eta MemorialLab-Madrid ekimenetan.





ETORKIZUNERA BEGIRA

**NAHIZ ETA ZAILTASUN ASKORI AURRE
EGIN, MEMORIALABEKO ERAGILE ETA
ENTITATEOK EKIMEN HAU EUSKADIK BIZI
DUEN TESTUINGURUAN BEHARREZKOA ETA
GARRANTZITSUA DELA PENTSATZEN JARRAITZEN
DUGU. URTE GUZTI HAUETAN HARREMANETAN
JARRI DIREN ERAKUNDE ETA ERAGILEEK (EUSKADI
BARRUAN ETA KANPOAN) BAT EGITEN DUTE
HERRITARREN ARTEKO ELKARRIZKETARAKO
EKIMEN HAU AURRERA ERAMATEKO
METODOLOGIAREN ABORDATZEA ETA EUSKAL
GIZARTEAK BIZI DUEN GARAIA APROPOSAK
DIRELA PENTSATZEAN.**

**BIDEAN JARRAITZEN DUGU, GURE ESKU DAGO.
ESKERRIK ASKO.**

Azken agurra
Herri hau herri egin al dugu?
Ze eman du bizikidetzak?
Zenbat eman du euskalduntzeak?
Ez behar beste guretzat.
Berrogei urte ta garaia da
egurasteko ametsak.
Akaso hortan bertsolaritza
ona da adibidetzat.
Beti ez du goitik behera egiten
transmisioaren trentzak.
Guk behetik gora ikasi dugu
ta zabaldu muga ertzak.
Lehengoekin ta gaurkoengandik
txapel hau gerokoentzat!

Maialen Lujanbio Zugasti
2017ko. Bertsolari txapelketa
Nagusiko agurra

12

EKIMENA ZABALTZEN

**ORAIN ARTE, MEMORIALAB EKIMENA ARGITALPEN,
JARDUNALDI ETA BESTELAKO HAUEN BIDEZ
GIZARTERATU ETA HEDATU DUGU, ESTATUAN
NAHIZ NAZIOARTEAN.**

Bartzelona 2018, *II Jornada experiencial i de reflexió: Experiències emocionals i exploració de sentís compartits del conflicte actual Catalunya-Espanya*, Katalunia eta Espainiaren arteko egungo gatazkarekiko sentsibiltatea duten katalanen talde baten sozializazio eta praktikaren aplikazioa. Casa Orlandai Kultur Elkartea.

Madril, 2017, *Memorialab Madrid-Colombia*. Madrilen prozesuaren erreplika arrakastatsua egin zen, Espainian bizi zen eta Kolonbiako gatazka pairatu zuen kolonbiar talde batekin. Ariketa Madrilgo Udalak eta Estudio 40 Kultur Elkartek babestu zuten.

Madril, 2017, *Retos para la convivencia y la paz en las ciudades jardunaldiak*. Antolatzaileak: AIPAZ, Demospaz eta Madrilgo Udala.

Euskal Herria, 2017, *Giza Eskubide eta Bake Hezkuntzaren Elkarleen Foroak argitaratutako katalogoa*. <https://foroderechoshumanos.org/catalogo-de-recursos-de-entidades-del-foro-sobre-paz-convivencia-y-derechos-humanos-de-la-capv/>

Mechelen (Belgika), 2016, *hitzaldia Connecting Law&Memory nazioarteko mintegian* Antolatzailea: Kazerne Dossin. [Informazioa hemen](#)

Gasteiz (Euskal Herria), 2016, *hitzaldia Experiencias de aplicación de la Teoría U y las administraciones públicas mintegian*. Antolatzailea: Q-epea. [Informazioa hemen](#)

Medellín (Kolonbia), 2016, *hitzaldia Construcción de paz, resistencia y reconciliación esperientzia-trukean*. Antolatzaileak: Bakearen aldeko Kataluniako Nazioarteko Institutua (ICIP) eta Casa de la Memoria de Medellín museoa.

Brusela (Belgika), 2015, *Hitzaldia "The issues and challenges faced by memory initiatives on contemporary international crimes. Lessons learned from the practices of the actors involved"*, nazioarteko mintegian. Antolatzailea: RCN Justice&Démocratie.

Donostia (Euskal Herria), 2015, *hitzaldia eta erraztaile-lanak Jakintza-elkarrizketa mintegian, UPV/EHUk eta gizarte-mugimenduek Euskadiko gatazkari, indarkeriari eta bakeari heltzea gaiari buruzkoa*, Antolatzailea: UPV/EHU. [Informazioa hemen](#)

Oñati (Euskal Herria), 2014, *hitzaldia Justicia transicional mintegian*. Antolatzailea: Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundea.

Hego Korea, No Gun Ri, 2014. Memorialabi buruzko hitzaldia *Bakearen Museoen nazioarteko 8. biltzarrean*.

Bilbo. AIPAZ (2014), Memorialab aurkezteko hitzaldia *Hiritar pluraltasuna: bakea eraikitzea gizartearen oinarrian jardunaldietan*. [Informazioa hemen](#)

ERANSKINAK

LEHENBIZIKO MEMORIALABEN EGITARAUUA (BERRIZ, 2013)

Lan-Egitarauua

Lehen eguna | BARNETEGIA – LABORATEGI SOZIALA

Goizean

- 08:30 - 09:00 Iritsi eta logelak banatu.
- 09:00 - 10:00 Parte-hartzaileei harrera. Aurkezpena eta lan-metodologia.
- Iratxe Momoitio: Gernikako Bakearen Museoko zuzendaria.
 - Gorka Ruiz: Bakeolako koordinatzailea eta Giza Eskubide eta Bake Hezkuntzaren Elkartearen Foroko presidentea.
- 10:00 - 12:00 **Lehen blokea. Denboraren lerroa: mugarriak eta gertaerak.**
Dinamizatzailea: Esther Canarias (INCYDE).
- 12:00 - 12:30 Kafea hartzeko atsedenaldia.
- 12:30 - 14:30 **Bigarren blokea. Urraketak, sufrimenduak eta bizikidetza-asaldurak.**
Dinamizatzailea: Julián Ibáñez de Opacua.
- 14:30 - 15:30 Bazkaria.

Arratsaldean

- 15:30 - 17:30 **Hirugarren blokea. Bizipenak eta memoriak.**
Dinamizatzailea: Gregorio Armañanzas Ros (mediku-psikoterapeuta eta psikiatra).
- 17:30 - 18:00 Kafea hartzeko atsedenaldia.
- 18:00 - 20:00 **Laugarren blokea. Elkarrietzaketa.**
Dinamizatzailea: Asier Gallastegi (KORAPILATZEN).
- 20:00 - 20:30 Atsedenaldia.
- 20:30 - 21:30 Afaria.

Gauetan

- 21:30 - 23:30 **Bosgarren blokea. Lan-atalen balorazioa.**
Dinamizatzaileak: Gernikako Bakearen Museoa eta Bakeola.

Bigarren eguna | BARNETEGIA – LABORATEGI SOZIALA

Goizean

- 09:00 - 11:00 **Seigarren blokea. Proiektu piloturako materialak, edukiak.**
Dinamizatzaileak: Gernikako Bakearen Museoa eta Bakeola.
- 11:00 - 11:30 Kafea hartzeko atsedenaldia.
- 11:30 - 13:00 **Zazpigarren blokea. Ondorioak, itxiera eta balorazioa.**
Dinamizatzaileak: Gernikako Bakearen Museoa eta Bakeola.
- 13:00 - 15:00 Bazkaria (aukerakoa).

MEMORIALABEN IRUDIEN SORMENA:

Alex Carrascosa



**EGIN DIREN
MEMORIALABEN
ZENBAIT ESKUORRI**

MemoriaLAB
encuentros ciudadanos para la
construcción social de la memoria



14 de Febrero de 2015
Museo de la Paz de Gernika

ABANTO ZIERBENA
UDALA + AYUNTAMIENTO

GERNIKA LUMO
UDALAKO KULTURAREN ARLOA

GERNIKA GOGORATUZ
Gernika Gogoratuz proiektua

bakeola

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

MemoriaLAB
herritarren topaketak
memoriaren eraikuntza sozialerako



2015ko Martxoak 7 eta 8
Larrea Etxea – Amorebieta-Etxano

ABANTO ZIERBENA
UDALA + AYUNTAMIENTO

GERNIKA LUMO
UDALAKO KULTURAREN ARLOA

GERNIKA GOGORATUZ
Gernika Gogoratuz proiektua

bakeola

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

MemoriaLab
Encuentros Ciudadanos para la
Construcción Social de la Memoria



9 de Enero de 2016
Barnezabal (Berriz)

2 de Febrero de 2016
Museo de la Paz de Gernika

Organizati:

Financian:

GERNIKA LUMO

MemoriaLab
Encuentros Ciudadanos para la
Construcción Social de la Memoria



9 de Enero de 2016
Barnezabal (Berriz)

2 de Febrero de 2016
Museo de la Paz de Gernika

Organizati:

Financian:

GERNIKA LUMO

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

Ararteko (2009): *Atención institucional a las víctimas del terrorismo en Euskadi*. Vitoria-Gasteiz, Ararteko.

Argituz (2012): *El tiempo es ahora. ¿Es posible una memoria incluyente de las víctimas en el ámbito local? Experiencias y desafíos*. Donostia-San Sebastian, Argituz.

Bohm D. (2016) (red.): *Totalidad y el orden implicado*. Barcelona, Kairós. (1996): *Sobre el diálogo*. Barcelona, Kairós.

Bohman J. (1996): *Public deliberation. Pluralism, complexity and democracy*. Cambridge, The MIT Press.

Brookfield S. (2005): *The power of critical theory. Liberating adult learning and teaching*. San Francisco, Jossey Bass.

Carrascosa A. (2009): *Dia Tekhné. Diálogo a través del arte*. Bilbao, Bakeaz y Gernika Gogoratz.

Capra, F. (1996): *La trama de la vida*, Barcelona, Anagrama.

Deusto Forum (2012): *Justicia para la convivencia. Encuentro justicia retributiva y restaurativa: su articulación en los delitos de terrorismo*. Bilbao, Universidad de Deusto.

Fundación Fernando Buesa Fundazioa (2015): *La sociedad vasca ante el terrorismo. Pasado, presente y futuro*. Vitoria-Gasteiz: Fundación FB Fundazioa, Instituto Universitario de Historia Social Valentín de Foronda.

Gendlin E. (1999) (5ª ed.): *Focusing. Proceso y técnica del enfoque corporal*. Bilbao, Mensajero.

Halbwachs M. (2004): *La memoria colectiva*, Zaragoza, Prensas Universitarias de Zaragoza.

Heron J. (1996): *Cooperative Inquiry. Research into the Human Condition*, London, SAGE Publications.

Isaacs W. (1999): *Dialogue and the art of thinking together*. New York, Doubleday.

Lapsley M. (2012): *Redeeming the Past: My Journey from Freedom Fighter to Healer*. New York, Orbis Books.

Lederach J.P. (2009): *La imaginación moral. El arte y el alma de la construcción de la paz*, Bilbao: Gernika Gogoratz.

Lederach J.P, Lederach A. J. (2014): *Cuando la sangre y los huesos claman. Travesías por el paisaje sonoro de la curación y la reconciliación*. Bilbao, Gernika Gogoratz.

Martín Beristain C., Bilbao Aberdi G., Ibañez de Opacua J., (2015): *Ondas en el agua. Un análisis de la experiencia Glen Cree*. Barcelona, Liniazero editions.

Etxeberria, X.(2003): *La educación para la paz ante la violencia de ETA*. Bilbao: Bakeaz. (2013): *La educación por la paz reconfigurada. La perspectiva de las víctimas*. Madrid, Catarata.

Mindell A. (1992) *The leader as martial artist. Techniques and strategies for resolving conflict and creating community*. Portland: Lao Tse Press (2000): *Dreaming while awake*. Virginia, Hampton Roads (2014): *Sentados en el fuego*. Oregon, Deep Democracy Exchange.

Morin E. (2007): *Introducción al pensamiento complejo*. Barcelona, Gedisa.

Oianguren, M. (2016): "Laboratorios para la construcción social de memoria en el País Vasco" en -Cuadernos para la Paz nº 27, Barcelona, ICIP. http://www.icip-perlapau.cat/numero27/tribuna/tribuna_2/es

Retolaza I. (2008): "El diálogo en procesos sociales complejos. Consideraciones teóricas e implicaciones práctica", Nota preparada para el Encuentro de la Comunidad de Práctica sobre Diálogo y Deliberación en Bolivia, <http://www.democraticdialoguenetwork.org/app/documents/view/es/1629/1> (2008): 'Moving up and down the ladder. Community-based participation in public dialogue and deliberation in Bolivia and Guatemala', en Community Development Journal, Volume 43 Issue 3, London, Oxford University Press, <http://www.democraticdialoguenetwork.org/app/documents/view/en/1123> (2010): *Teoría de Cambio. Un enfoque de pensamiento-acción para navegar en la complejidad de los procesos de cambio social*, Guatemala, PNUD/HIVOS <http://www.democraticdialoguenetwork.org/app/documents/view/es/1623>

Ruiz, G., y Salazar, R., (2014): *Bakeaz Blai: Programa Pedagógico con Víctimas Educadoras*. Oñati Socio-legal Series [online], 4 (3), 525-549. <http://ssrn.com/abstract=2368140>

Secretaría General de Derechos Humanos, Convivencia y Cooperación del Gobierno Vasco (2017-2020): *Un objetivo de encuentro social, la opción por la empatía*. Vitoria-Gasteiz, Gobierno Vasco.

Scharmer O. (2015): *Teoría U. Liderar desde el futuro a medida que emerge*, Barcelona, Eleftheria.

Scharmer O., Kaüfer K., (2016): *Liderar desde el futuro emergente. Desde los ego-sistemas a los eco-sistemas económicos*, Barcelona, Eleftheria.

Gernika Gogoratuz Bakearen Ikerketa Zentro bat da eta 1987an Eusko Legebiltzarraren erabakiaren ondorioz sortu zen, bonbardaketaren 50. urteurrean, hain zuzen ere.

1995. urtetik Gernika Gogoratuz Fundazioak babesten du eta irabazteko asmorik gabeko erakunde independentea da.

Erreferentziazko sortzeko espazio bat da bakerako ikerketa eta ekintzetan, eta Bakearen Kulturaren garapenean gizarte eraldaketan laguntzen du.

Askotariko topaketa akademiko, sozial, kultural eta artistikoak antolatzen ditu: Kultura eta Bakearen Jardunaldiak, Arte eta Bakearen Topaketak, Jardunaldi Antimilitaristak eta Memoria Historikoa, eta Bakearen Ekonomia Laborategiak.

Red Gernika (Gernika Sarea) argitalpen saila editatu du, bakearen aldeko eta gatazken ikasketei buruzkoa.

